

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### DONEMILIAGAKO UDALA

##### Udalaren biztanle erroldan baja ematea

Ezinezkoa izan denez interesdunari zuzenean jakinaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ediktu honen bidez jakinarazten da ebazpen hau:

“Udalerrian bizi ez dela egiaztatu ondoren, hasiera eman zaio 18593530P Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia duen pertsonari biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.

Egin beharreko jakinarazpena ALHAOn eta BOEn argitaratu da eta interesdunari jakinarazi zaio.

Ikusirik Errolda Kontseiluaren Arabako Lurraldeko Atalak 2025eko uztailaren 23ko bileran egindako aldeko txostena.

Honen bidez, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 21.1.s) artikuluan aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz,

##### EBAZTEN DUT

Donemiliagako biztanle erroldatik ofizioz baja ematea 18593530P Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia duen pertsonari, 2025eko uztailaren 29an.

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, nahi izanez gero, jakinarazten den esanbidezko ebazpen hau hartu zuen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, jakinarazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera”.

Erdoña, 2025eko abuztuaren 1a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**